

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure zerbitzuak kotxea sarritan erabiltzen duten hiritarrentzat zuzenduta dago; adibidez lanera joateko kotxea erabiltzen dutenentzako, seme-alabak eskolara autoz eramaten dituzten gurasoentzat... Hauek izango litzateke gure bezero interesgarrienak, aipatu dudan bezala, izan ere, haien garraio mota erabileena kotxea delako. Ahalik eta bezero gehien izan nahi ditugu, gure zerbitzua haien menpe funtzionatzen duelako, hortaz, bezero gehien = informazio gehiago. Beraz, adibide bat jarrita, eskolan elkartzen badira guraso talde bat eta batek elkar partekatzen badute plataforma hau, automatikoki burutatuko zaie haiek baita gehitzea horra eta agian ez guraso guztiek baina kopuru bat harpidetuko da.



Horregatik errepikatzen dut, hiri bertako bezeroak direla garrantzitsuenak, kotxea egunero erabiltzen dutenak eta hainbat alditan aparkaleku desberdinetan mugitzen direnak direla. Haiek izango dira aplikazioaren hazia, haien laguntzaz lore polit bat sor dezakegu.

Zerbitzuak eskatzen dizkigutena kontuan hartuta molda ditzakegu, nahiago badute gidarien artean komunikatu ahal izatea txat baten bidez, aparkalekutik

irteteko asmoa duten ikusteko. Aldaketa edozein erabiltzailearen bizi-
hobetzeko eta arintzeko diseinatuko da.